

Ugunako ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Ugunako ur-jauzia Gorbeia Parke Naturalean kokatua dago. Ugunako ur-jauzitik hurre Saldropoko hezegunea dago. XX. mendeko 70 eta 80 urteetara arte ustiatutako zohikaztegi zahar bat zegoen tokian kokatzen da hezegune hori. Zohikaztegiak interes naturalistiko eta

geologiko handia duten hezeguneak dira, pH maila baxuko ura duten guneen inguruan sortu ohi direnak. Bereizgarri dute zohikaztegi-goroldioak (esfagnoak) pilatuak dituztela, eta horiek kantitate handian metatuta, ur bolumen handiak biltzeko gaitasuna dute, belakien antzera. Ibilbidean

zehir ur-jauzira heldu arte pagoak, haritzak (*Quercus robur*), elorri zuriak (*Crataegus monogyna*), sahatsak (*Salix spp.*) eta hainbat txilar mota (*Daboecia cantabrica*, *Erica vagans*, *Calluna vulgaris*) ikusteko aukera izango dugu.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 1,3 km



50 min



BTT hurbilketa
pista utzi arte



Udalerria:

Zeanuri

Hurbileko herria:

Zeanuri (Barazar mendate)



Ibaia:

Uguna



Arrisku faktore bat baino gehiago dago. Kontu handiz ibili ur-jauzira gerturatzeko unean



633 m



23 m



534 m



110 m



UGUNAKO
UR-JAUZIA

Ugunako ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Uguzpe/Uguna ur-jauzia Bizkaiko Lurralde Historikoko hego-ekialdean kokatua dago, Arratia-Nerbioi eskualdean, Barazarreko mendatetik gertu, Zeanuriko udalerrian. Barazar Gaineratik (N-240) abia gaitzeko, Barazar jotetxe-ostatuaren paretik.

Ibai-bideari Barazar Gaineratik ekingo diogu. Barazar ostatuaren parean, hormigoizkoa den pista hartu behar dugu, errepidearen eskuinaldean. Hortik gutxira hezegunerako bidea adierazten duen seinalea topatu eta Ubidea (bederatzi koma hiru km) adierazten duen BTT ibilbidea aurkituko dugu. PRBI-4 (GR-12) bidetik Saldroporantz jarraitu behar dugu bay koma lau kilometro inguru eginez. Pistatik jarraituko dugu "Saldropo Ibilbidea" adierazten duen seinaleari jarraituz, eta hezeguneari buruzko azalpen panelak dauden Interpretazio Zentroraino helduko gara. Saldropoko hezegunea ezkerrean utzi eta Zeanurirantzko pista, hasieran hormigoizkoa dena, hartu behar dugu, zazpirehun bat metroan zehar. Gero, pistaren bihurtze bat pasatu ondoren, mendian barna sartzen den ezkerreko bidezidorrari helduko diogu. Bidezidorrean aurrera egingo dugu, jaitsiz goazen neurrian estutuz doan bidezidor horretan, ibaiaren bila. Gerturatu ahala, ur-jauziaren soina entzungo dugu. Kontu handiz, ur-jauziaren behealdean dagoen behatoki naturalera jaitsiko gara. Bertatik ur-jauzia modu paregabean ikusteko aukera izango dugu.

Ibilbidea urteko edozein sasotan egin daiteke, baina euria egiten duen garaian eta urte-aldien ondoren, erreken emaria handiena denean, ur-jauziak modu paregabean ikusteko aukera izango dugu.

Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc



Ugunako ur-jauzia

